







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %0,8 egin zuen behera abuztuan, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %2,8 jaitzi zen eta zerbitzu arloan, ordea, %2,5 igo zen.

Abuztu arteko kontsumo metatuak %2,8 egin zuen gora; etxeko sektorean %5,1 igo zen, industrian %0,3 jaitzi zen; zementu eta karea sektoreetan, aldiz, %10,3 igo zen, baita itsas eraikuntza eta konponketan ere, %37,6; kautxuak ere gora egin du, %1,9 zehazki. Behera egin dutenak, ostera, beiragintza (%6,4), papera eta kartoia (%2,9) eta kimika sektorea (%1,3) izan dira.

#### Gas naturala

Abuztuan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %23,1 egin zuen behera, 2014ko abuztuan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %41,8 jaitzi zen eta gainerako sektoreena %15. Abuztu arteko kontsumo metatuak %4,8 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (-%4,6 CCTT-n eta +%7,2 gainerako sektoreetan).







#### Erregaiak garraioan

Uztailean, garraioan erregaien kontsumoa %5,6 igo zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %2,9 egin zuen gora eta A gasolioarenak %5,9.

Uztail arteko kontsumo metatua %2,9 igo da, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %1,1 egin zuen behera eta A gasolioarenak, ordea, %3,4 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera



### EAetik kanpoko egoera

#### Petrolioaren kontsumoa munduan

Abuztuan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 94 milioi kupel izan zen (2014ko abuztuan izandakoaren aldean, %1,2 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %1 egin zuen behera kontsumoak, 13,4 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %2,6 egin zuen gora, eta 11,2 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %1,5 igo zen, eta 19,7 Mbpd kopuruan kokatu zen.

Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,4 igo da, oro har, Txinan %3, AEBetan %1,5 eta Europar Batasunean %0,5.






#### Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %4,3 egin zuen gora abuztuan, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Abuztura bitartean izandako kontsumo metatuak %6,3 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen abuztuan, %3, 2014ko abuztuan izandakoaren aldean. Abuztura bitartean izandako kontsumo metatuak %4 egin zuen gora.

Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %7,7 egin zuen gora ekainean, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %4,2 igo zen eta gasolioena %8,5. Ekainera bitarteko kontsumo metatuak %3,5 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,3 igo zen gasolinena eta %4,2 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %14,4 egin zuen gora ekainean; ekainera bitarteko kontsumo metatua %6,4 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 55,9 €/MWh izan zen abuztuan; duela urtebetekoaren aldean, %11,4 egin zuen gora.

#### Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 19,8 €/MWh izan zen uztailean, eta %3,7 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Abuztuan, EGIX-en prezioa 19,5 €/MWh izan zen (2014ko abuztuan izandakoarekin alderatuta, %11,4 igo zen). Spot merkatuetan, abuztuan, Henry Hub-en prezioa 8,5 €/MWh izatera iritsi zen, 2014ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %14,8 jaitsi zen. Japonian 23,6 €/MWh izan zen (2014ko abuztuan izandakoaren aldean, %26,2 egin zuen behera).

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 47 \$ (42,2 €) izan zen abuztuan. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %40,4 egin zuen behera (%31,2 eurotan).

#### Erregaien prezioa

EAEn, uztailean, gasolioaren prezioa 1,13 €/l izan zen (urtebetean %13,4 jaitsi da), eta gasolinarena 1,29 €/l (urtebetean %8,4 jaitsi da).

#### CO<sub>2</sub>-aren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 8,1 €/t izan zen abuztuan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %29,4 egin du gora.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.